

POLTSIKO ANTZERKI JAIALDIA AZKEN TXANPAN SARTZEN DA

XXIX. Poltsiko Jaialdiaren hirugarren eta azken astea hastear dago eta orain arte ikusle aldetik erantzun bikaina izaten ari da. Larunbatetik igandera, **12 dohako emanaldi baino gehiagotaz gozatu ahal izango da** hiriko auzo desberdian.

Guzti horien artean, nabarmentzekoa da larunbatean izango den jaialdiaren amaiera festa. Bertan hartuko dute parte **Nerea Arriolak** "Dolox"-en paperean, **Paula Valluercak** "Madame Señorita: HER (Z)" ikuskizunarekin, eta **The Chanclettes** konpainiak "Discomóvil"saio apartarekin.

- Nerea Arriola Urberuaga (1988, Donostia) erizaina da lanbidez, baina antzerkian ibili da betidanik, Zurriolako Ikastolako antzerki-taldean. Berak eman die gorputza eta ahotsa *Supertxope* euskal youtuberrari eta Info7 irratiko Dolores Mujika *Dolox* pertsonaiari.
- Paula Valluercak (1987) parekorik ez duen maitasun mota batetaz egingo du hitz: *diva* batek bere publikoarekiko sentitzen duen maitasunaz. Haien arteko amodioa oso bizia izan da, baina inoiz ez da konpromesuz hitz egin. Urte asko daramatzate elkar ezagutzen, eta elkarrizketa "hori" izateko ordua iritsi da.
- The Chanclettes umorezko antzerki konpainia bat da, 'Turmixplayback'-aren sortzailea: trans-musek ileorde eta takoiekin zerbitzatzen duten kanta film, iragarki eta telebista programen nahasketa bat. Barre-terapiaren eta Bartzelonako kabalet kosmopolita garaikide onenaren guruak, euren ibilbide luzean 2000 emanaldi eta telebista agerpen baino gehiago dituzte.

Otsailaren 15ean, larunbatean, da hitzordua **Intxaurrondo Kultur Etxean** (Felix Gabilondo, 1) eta ate irekiera **21:00**etan izango da. Zain izango gaituzue!!!